

HIZNET

kuntza Plangintza Ikastaroa

[Lan-mundua berreuskalduntzeko
marko teoriko-metodologikoaren bila:
hiru erabilera-planen
azterketa eta ondorioa]



Mikel Urdangarin




Udako Euskal Unibertsitatea

[ibilbidea]

1. Ekarpena eta Muga
2. Ideia-gakoak
3. Testuingurua
4. Oinarri metodologikoa
5. Enpresak
6. Erantzunen analisia
7. Eztabaidarako

[ekarpena eta muga]

- ✘ Ekarpena: erabilitako tresna

 - Analisirako marko estandarrak

 - Deskripzioa eta alderaketa

 - Identifikatu gehien errepikatzen diren gaiak

 - Ereferentzia: eztabaidarako aukera

- ✘ Muga: 3 plan eta bakoitzeko iturri bakarra

[ideia-gakoak]

- ✘ Lan-mundua estrategikoa da euskararentzat
- ✘ Euskara-planak tresnarik eraginkorrenak dira helburua lortzeko
- ✘ Aktibatu: euskalgintza, gizartea, eragileak eta administrazioa
- ✘ Elkarlana: prozesua bizkortzeko gakoa


[lanaren testuingurua]

- ✘ Zer dira erabilera-planak
 - ✘ Zergatik erabilera
 - ✘ Zergatik plana
 - ✘ Zergatik lan-munduan
 - ✘ Historia txikia
 - ✘ Atzerriko eskarmentua
 - ✘ Enpresen zerrenda
- ✘ EBPN eta HPSren eredia, dirulaguntzak
- ✘ Falta: Kontseiluaren ziurtagiria...

[oinarri metodologikoa]

⇒ J. Ignazio Markoren proposamena ⇐

- x E gungo metodologia: plangintzaren teoriar eta organizazioaren kudeaketan oinarritua. **Osa tu**, diziplina zientifiko berria: HPI



Marko Juanikorena, J. Inazio (2000): *Hizkuntza prozesuen ingeniari-tza*. BAT-Sociolinguistika Aldizkaria, 34. Zka.

[oinarri metodologikoa]

✘ Ikerketa-ekintza:

✘ Interbentzio eredua: EusLab egitasmoa

✘ Ikerketa abiatzeko informazioa:
deskripziorako markoa eraiki: 6 galdera

[galdetegia]

1. Zer lortu nahi da?

2. Non lortu nahi da?

3. Zertarako lortu nahi da?

4. Nork sustatu du?

5. Nola lortu nahi da?

6. Zein emaitza lortu dira?

[lanaren metodologia]

1. Dokumentazioa eta testuingurua
2. Laguntza eskatu eta galdetegia bidali e-postaz
3. Erantzunen analisia
4. Elkarrizketak: argitu eta sakontzeko
5. Transkripzioa eta erantzunen analisia
6. Sintetizazioa eta ondorioak

[enpresak]

AZTI Fundazioa	MAIER Taldea	ELAY Taldea
-------------------	-----------------	----------------

AZTI Fundazioa

Kokapena: Sukarrieta (Bizkaia) eta Pasaia (Gipuzkoa).

Izaera: Fundazioa

Jarduera: I + G Arrantza- eta elikadura-sektoreen gizarte- eta ekonomia-garapenean dihardu, bai eta itsas ingurunearen eta natura-baliabideen babes-lanean ere

Langile kopurura: 120

Ziurtagiriak: UNE EN ISO 9001:2000; Zentzumen eta Biokimika laborategientzat UNE EN ISO 17025

Erabilera-plana: Elhuyar 2002. Planak egitura berezia du enpresan txertatzea lortzeari begira

<http://www.azti.es>

MAIER Koop. E. eta Maier Tecnology Center (MTC)

Kokapena: Ajangiz (Bizkaia)

Izaera: Kooperatiba

Jarduera: Automobilgintzako, etxetresna elektrikoak egiteko eta kontsumoko elektronikako osagaiak eta azpi-osagaiak

Langile kopurura: 750 eta 125

Ziurtagiriak: ISO/TS 16949; ISO 14001

Erabilera-plana: Elhuyar 1998. Bi garai izan ditu planak: lehenengoan, langile euskaldunez osatutako “hobetaldetxuak” osatu ziren erabilera bultzatzeko, eta gidaritza lana Euskara Hobetalde batek egin zuen; bigarren fasean, plana kooperatibaren gestioan txertatzea da lehentasuna

<http://www.maier.es>

ELAY Taldea

Kokapena: Antzuola (Gipuzkoa)

Izaera: Elkarte Anonimoa

Jarduera: Ebaketa zehatza, doitasunezko trokelak, gain-moldaketa eta tratamenduak

Langile kopurura: 282

Ziurtagiriak: (E.I. Elay industrial.- T: Trokelay .- S Seytra) (E:I) UNE EN ISO 9002:1994; UNE ISO/TS 16949:2000,;(T; S)UNE EN ISO 9001: 2000;

Inguru giroa : (S) UNE EN ISO 14001:1996; (E.I, (T) Ekoscan programa;

Prebentzioa: UNE 81900EXP irizpideak ezarrita

Erabilera-plana: Elhuyar 1992. Hiru garai izan ditu planak: lehenengoan, komunikazio zirkuluak eta kanpoko aholkularitza ziren oinarriak; bigarreanean, aholkularitza utzi, Euskara Batzordea osatu eta sistematizazioaren bila joan ziren prozedurak idatziz; eta hirugarrenean, sistematizazioaren ezarpena lortu dute kalitate sailaren bitartez

<http://www.elay.com>

[zer lortu nahi da]

✘ Helburua ongi zehaztea garrantzitsua da: nork berea

✘ Bi idazkera:

Lehen: laburra eta azpi-helburuak

Orain: luzea eta prozesuaren izaera aipatu

✘ Zergatik: kultura aldaketaren isla eta eskarmentua

Helburuaren arabera baliabide eta tresnak

Planaren dimentsioa / aldaketaren tamaina

Plana barneratu

[zer lortu nahi da]

✘ Eutsigarritasuna: lorgarria / baliabidez hornitua

✘ Atzeraezintasuna: lortutakoa lege bihurtu

Sistematika baten bidez enpresaren gestioan txertatu

Gainditu unean uneko borondateak eta testuinguruak

✘ ELAY salbuespena: konpromisoa / esporta ezina

[non lortu nahi da]

- ✘ Hirurek kulturen eta politikan eragin nahi

Horretarako: sistemak eta organizazioa eraldatu eta pertsonen jarreraren eragin

- ✘ Kanpora begira ere bai

[zertarako lortu nahi da]

- ✘ Hiru kasuetan: barne demandari erantzun
- ✘ Langile euskaldunen koherentzia
- ✘ Enpresa aurreratuen kultura (kalitatea): langilea asebate

(AZTIren kasuan barne demanda txikiagoa, baina bezero euskaldunak, administrazioaren partehartzea...)

[zertarako lortu nahi da]

- ✘ Hutsunea dugu: intangibleak landu behar
 - ✘ Begirunea giza-aniztasunari
 - ✘ Begirunea gizarteari eta pertsoneri
 - ✘ Begirunea legeari
 - ✘ Onura ekar diezaioke enpresari
 - ✘ Globalizazioaren aurrean oreka / barne kohesioa - motibazioa / proiektu etkoa / gizarte eta instituzioen atxikimendua / itzala / balio erantsia /
- ✘ Aktibatu: euskalgintza, gizartea, eragileak eta administrazioa

[nork sustatu du]

- ✘ Langile euskaldunak
- ✘ Zuzendaritzaren babesa

Ezinbestekoak

[nork sustatu du]

- ✘ Erresistentzia eta borondate falta
- ✘ Mekanismoak:
 - ✘ Informazioa: aldizkaria, komunikazioak...
 - ✘ Euskaldunak eta erdaldunak parte hartu
 - ✘ Negoziazioa
 - ✘ Enpresaren irizpidea: zuzendaritza (hiruretan)
 - ✘ Eragile sarea (5's)
 - ✘ Departamentuen arteko demanda
 - ✘ Nahi ez duena salbuetsi – eskubideak babestu
 - ✘ Erritmoa: arauetan eta eskoletan
- ✘ Ez da gatazkarik edo gorabeherarik gabeko planik ⇒ ondo prestatu

[nork sustatu du]

- ✘ Arazoei aurrea hartu: kontratazio politika
 - ✘ Batzuk idatzi gabe
- ✘ Berrien harrera eta aurkezpenak
 - ✘ Ohitura berriak euskaraz eraiki
 - ✘ Euskaldun-berriei tresnak eskaini
- ✘ Gakoa: giza-baliabideetako arduraduna

[nola lortu nahi da]

✘ Ibilbideari buruz:

✘ desberdina

Garaia

Garapen maila

Ezaugarri propioak



bilakaera

✘ Hazia: ?

✘ Helmuga: hizkuntzen oreka berria bermatuko duen sistematika (hasieran horrela formulatu ez)


ELAY	MAIER	AZTI
Hazia	Hazia	Hazia
Abiatu	Abiatu	Abiatu
Aldaketa txikiak	Aldaketa txikiak	Arau partzialak
Krisia? Bidea aurkitu	Krisia? Bidea aurkitu	?
Orokortze / Erakundetzea	Orokortze / Erakundetzea	?
Sistematika	Sistematika?	Sistematika?
Txertatu	?	?
Ezarri	?	?
?	?	?

[nola lortu nahi da]

- ✘ Beraz: sistematika beharrezkoa da plana eutsigarri eta atzeraezina egiteko, efizientziaz. (Prozedurak?)
- ✘ Enpresaren neurrikoa izateko ezinbestekoa da partehartze kualitatiboa
- ✘ Aurrera egiteko pausuak "gizendu":
 - ✘ Aurretik edo ondoren
 - ✘ Hizkuntzak (erabakiak edo arauak) sortutako beldurrak uxatu, praktikan gatazkarik ez duela sortzen ikustarazi, eta pausoak ulergarri egin
 - ✘ Erdaldunenak ez ezik euskaldunenak ere

[nola lortu nahi da]

x Aurreratze zikloa:



(Aurrerapausoak eta blokeoak: zergatik, nola gainditu, mekanismoak...)

[nola lortu nahi da]

- ✘ Egiturari buruzkoak: Egitura periferikoak eta erabilera taldeen krisia
 - ✘ Arazoa ez da egitura; helburua eta epea baizik
 - ✘ Batzordeak, eragile-sareak, koordinatzaileak ez dira arrotzak (kalitateak ere egitura propioa behar)
 - ✘ Gakoa: helburuaren arabera osatu eta iraupena jarri (enpresaren zeregin nagusiari al bait baliabide gutxien jan)

[zer lortu da]

- ✘ AZTI: ez dugu daturik konparatzeko
- ✘ MAIER eta ELAY: adierazleek gora
 - ✘ Komunikazioak BALZERS: % 10 \Rightarrow % 67
 - ✘ Bilerak ELAY: % 0 \Rightarrow % 77
- ✘ Batzuetan mantentzea aurrerapausoa:
 - ✘ MAIER ezagutza: % 65 baina 300 langile berri (kontratazio politika)

[zer lortu da]

- ✘ Ahozko formalean ongi:
 - ✘ MAIER megafonia: % 100
 - ✘ MAIER Zuzendaritza Kontseilua: % 100
- ✘ Ahozko informalean motelago: % 45
 - ✘ Ezagutza % 65 izanik asko da
 - ✘ ELAY: kalean egiten ez duenak, nola lantokian?
 - ✘ Planak berriak dira eta egituran txertatzea atzo goizekoa. 10-15 urtera begira ari gara, belaunaldi berrien ohitura berriei begira, baina denbora kontra dugu: elebidun desorekatuak

[zer lortu da]

- ✘ Indarrak liberatu (legezkoa bete) eta gehiago erreparatu mintzamenari
- ✘ HPSren deialdian (borondatezkoak):
 - ✘ Lanpostuen eskakizuna eta kontratazio politika
 - ✘ Ahozko informala lantzeko neurriak

[zer lortu da]

- ✘ Jarraipena eta adierazle sistema: ez dugu gehiegi sakondu, baina arazoa da
 - ✘ "Neurtzen ez dena ez da ezagutzen, eta ezagutzen ez dena ezin da hobetu"
- ✘ Neurtu neurtzen da, baina:
 - ✘ Metro bera urtez urte?
 - ✘ Sinplifikatu, bi zenbakitara ekarri

[eztabaidarako]

- ✘ Erabilera-planak konplexuak dira eta diziplina askotatik edan behar dugu: HPI
- ✘ Analisirako galdetegia tresna baliagarria da (informazioa jasotzeko sistema, hipotesiak egiteko, alderatzeko...), baina alde kronologikoari erreparatu behar zaio
- ✘ Elkarlana
- ✘ Gakoak:

[eztabaidarako]

1. Helburua ongi idatzi
 - ✘ Egoera, kultura eta konpromisoaren arabera
 - ✘ Prozesua: non eta nola (baliabidea koherentea)
2. Erabakiak gizendu eta aurreratze zikloa
3. Erritmoari erreparatu: bide luzea
4. Egiturazko helburuak sistematizatu: eutsigarri eta atzeraezin
5. Tokian tokiko bideak, baina prozedurek oreka handiagoa eta etengabeko hobekuntza (Kalitate/sistema burua)

[eztabaidarako]

11. Argudioen arloan:

- ✘ Euskaingintzak demanda eragin
- ✘ Gizarteak ulertu eta eskatu
- ✘ Administrazioa:
 - ✘ Gizarteari ulertarazi
 - ✘ Markoa sortu eta enpresei gonbitea (kalitatea, ingurumena edo segurtasuna)
 - ✘ Minimoak arautu (langile eta kontsumitzaileen eskubideak)
 - ✘ Diruz hornitu edo pizgarriak
- ✘ Eragileak aktibatu eta elkarlana (Osalan edo Hobetuz modukoa)
- ✘ Kalitateari lotu euskara
- ✘ Hizkuntzen plana?

[eskerrik asko]

AZTI Fundazioa

MAIER Taldea

ELAY Taldea

E lhuyar aholkularitza

Ahize aholkularitza (AEK)

J. Ignazio Marko Juanikorena

Ikastaroaren antolatzaileak eta etorritakoak

[laburbilduz]

- ✘ Lan-mundua estrategikoa da euskara biziberritzeko
 - ✘ Kuantitatiboki eta Kualitatiboki
- ✘ Euskarak onura dakarkio enpresari
 - ✘ Kohesioa / Motibazioa / Identitatea / Itzala
- ✘ Plana tresnarik eraginkorrena da helburua lortzeko (kalitatea bezalako markoa eta sistematika)
- ✘ Aktibatu: euskalgintza, gizarte, eragileak eta administrazioa
- ✘ Elkarlana: prozesua bizkortzeko gakoa

[eranskina]

Erantzunen laburpena (1-5)

[zer lortu nahi da]

AZTI Fundazioa

3 urterako helburua: euskararen erabileraren hazkunde eutsigarria erakundean.

Jarrerak aktibatu

Hizkuntza gaitasuna areagotu

Pauso eutsigarriak eta atzeraezinak.

Zerbitzua euskaraz ere eman.

[zer lortu nahi da]

Maier E.Koop /MTC

(1.plangintzaldia)

Euskara erakundearen lan hizkuntza nagusia izatea.

(2. plangintzaldia)

Erakundearen eta erakundea osatzen duten lagunen kultur aldaketa, euskararentzako eragile aktibo bihurtu.

[zer lortu nahi da]

ELAY Taldea

Barne harremanetan: Euskaraz lan egin.

Kanpo harremanetan: Bezero zein hornitzaileekin harremanak euskaraz izan daitezzen sistematika bat garatzea.

[non lortu nahi da]

AZTI Fundazioa

Erabilera-plana erakundeko egituretan eta irizpideetan txertatu nahi da, erakundeko kideen motibazio, ezagutza eta erabileran eragiteaz gainera

[non lortu nahi da]

Maier E.Koop /MTC

- (1. plangintzaldia) Euskaldunengan eragin nahi da eta horien bidez enpresaren egituretan. Zeharka taldeko enpresaren batean ere eragina sortu da eta taldeko elementu komunetan (kalitatea, intraneta, dokumentazioa...)
- (2. plangintzaldian) Egituretan zuzenean eta pertsona guztien kulturaren (euskaldunak eta erdaldunak) liderrengandik hasita

[non lortu nahi da]

ELAY Taldea

Enpresan bere osotasunean eragin nahi da: kultura, sistemak, kontratazio politika. Prozedura guztietan txertatu eta gainontzeko irizpideekin bezala jokatu

[zertarako lortu nahi da]

AZTI Fundazioa

Fundazioko langile euskaldunen aldarrikapenari erantzun
Izaera erdi publikoa
Bezero asko Euskal Herrian

[zertarako lortu nahi da]

Maier E.Koop /MTC

Gizartearekiko eta inguruarekiko konpromisoa
Langileen arteko trinkotzerako
Arrazoi nagusia: euskararekiko atxikimendua

[zertarako lortu nahi da]

ELAY Taldea

Gizartearekiko eta inguruarekiko konpromisoa
Giza-kapitala babestu
Arrazoi nagusia: euskararekiko atxikimendua

[nork sustatu du]

AZTI Fundazioa

Enpresan denbora luze daraman langile talde batek beti zaindu izan ditu gutxieneko batzuk

Zuzendariak ere aldeko jarrera izan du

Erresistentzia jarrerak sumatu dira, baina arazorik ez

Komunikazioa izan da klabea

[nork sustatu du]

Maier E.Koop /MTC

(1. plangintzaldian) Langile euskaldunak eta euskaltzaleak dira eragileak
Arduradunen sustatze lana erabakiak hatzera mugatu zen

(2. plangintzaldian) Kooperatibako lehendakari berriak eta zuzendaritzako
hainbat kide

Hasieran planari bultzada eman zioten bazkide sortzaileak eta bertan
hiruzpalau urte daramaten bazkide gazte eta euskaldunak

[nork sustatu du]

ELAY Taldea

Euskararen aldeko neurriak garai batean sustatu zituztenen lanak eta langile batzordeko kide guztien adostasunak sortu zituzten baldintza egokiak enpresaren baitan erabakiak hartzeko.

Enpresako jabe eta kudeatzaileek hasieratik hartu zuten konpromiso sendoa eta beharrezkoa ziren baliabidez hornitu

The background features a dark blue field with several sets of concentric circles in a lighter blue hue. A dashed blue line runs diagonally from the bottom-left towards the top-right, passing through the center of the text.

[nola lortu nahi da]

AZTI Fundazioa

Erabilera, langileen gaitasuna eta euskararekiko motibazioa landu nahi dira. Erabilera eta gaitasuna lantzeko planean zehaztutako ardatzak epe zehatza duten ad hoc sortutako taldeen bidez kudeatzen ari da. Taldeko partaideak helburuan ardura duten pertsonak dira eta Euskara Batzordeak proposatu eta Zuzendaritzak oniritzia eman die. Euskaldunak eta erdaldunak ari dira taldeotan. Orain arte 5 lan talde jarri dira martxan (aldi berean 2 lan talde baino ezin dira aritu) Landutako ardatzak hauek dira: Ahozko harrera, barne dokumentazioa, errotulazioa, barne komunikazioa eta hiztegia. Lan Taldeok iraupen desberdina dute lan kargaren arabera eta enpresaren gestioan txertatzea lortu artean (1-4 hilabete). Lan taldeon emaitzak gehienetan prozedura forma izan dute.

Motibazioa langile euskaldunekin landuko da erabilera eta trinkotzea sustatzeko. Teknikariaren laguntzaz ari dira.

Plana zuzentzeko euskara batzorde bat dago (Fundazioko Zuzendaria, Koordinatzailea, Pasaiaiko Ordezkaria, martxan dauden lan taldeetako ordezkariek eta teknikaria dira, 4-6 lagun). Eginkizunak: lan-taldeetako lanei jarraipena eta proiektuen onarpena, Planaren norabidea finkatu eta Zuzendaritzarekiko harremanak. Maiztasuna: hiru hilero.

Maier E.Koop /MTC

(1. plangintzaldia) Lan guneka Hobetaldetxuak antolatzen dira bertako proiektuak edo proiektu orokorrak lantzeko, laneko euskaran trebatzeko eta langile euskaldunak trinkotzeko. Enpresako arduradun naturalek ez dute ia parte hartu eta ondorioz erakundean eragiteko gaitasuna txikia izan da. Euskara-Hobetaldea edo batzorde bat dago langile euskaltzaleez osatua batik bat. Enpresaren kulturarekin bat datorren egitura izanik ere, periferikoa da eta ez du erabaki guneetan eragiten.

(2. plangintzaldia) Plana enpresaren eta sailetako gestioan txertatu nahi da bi neurriren bidez:

- Gestio-planetan euskara erabilera sustatzeko helburuak zehazten dira eta Kooperatibako Zuzendaritzak honen jarraipena egiten du.
- Sailetako Zuzendariei euskara-planeko helburuak kudeaketa errazteko laguntza egitura bat sortu da (eragileak, jarraipen hobetaldea eta teknikaria). Enpresak AOG (5's) kudeatzeko erabilitako egituraren antzekoa da.

Plana osoaren zuzendaritza batzordea osatu dute: Maier Gernikako Zuzendaritzako ordezkari bi, Maier Taldeko Zuzendaritzako ordezkari bat, MTCko Zuzendaritzako ordezkaria eta teknikaria. Eginkizunak: planaren berri Kooperatibako Zuzendaritzetan eman eta planaren norabidea finkatu. Maiztasuna: hileroko

ELAY Taldea

(1. plangintzaldia) Proiektu pilotua. Langile euskaldunez osatutako komunikazio zirkuluak eta Euskara Batzordea. Zirkuluetan erabilera bultzatu, motibazioa eta trebakuntza lantzen ziren. Proiektu txikiak landuz ohitura berriak ezartzeko eta euskaraz lan egiteak dakarren aldaketaz jabetzeko tresna dira lan taldeok. Teknikari baten laguntzarekin dihardute.

(2. plangintzaldia) Ordura arte landutako proiektu multzoa 4 prozeduratara eta enpresako hizkuntza politika bakarrera ekarri zuten enpresako euskararen erabilera arautuz. Horretaz gainera, enpresaren kalitate sistemako gainontzeko prozedura eta jarraibideetan (dagokionetan) ere integratu zituen euskarari buruzko irizpideak Kalitate Sailak.

Urtebetera teknikariaren figura desagertu zen. Fase honetan Euskara Batzordeak gestio organo gisa funtzionatzeari ekin zion.

(3. Plangintzaldia) Prestatutako sistematika ezarri da. Kalitateko teknikariek haien gain hartu dute planaren egunerokotasunaren jarraipena auditoriak eginez, desbideraketak detektatuz, eta subjektuen akzio zuzentzaileen proposamenak jasoz.

Euskara batzordean zuzendaria eta 14 arduradunek hartzen dute parte. Planaren gidaritza egiten dute eta auditorian oinarritutako hobekuntzak nork bere sailean ezartzeko ardura du.